

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresaren negozio.ereduak funtziona dezan funtsezko jarduerak oso garrantzitsuak esaten dira. Gure enpresako funtsezko jarduera ekoizpena izango da, oso garrantzitsua batez ere lehengaiak lortzeko orduan, adibidez: zorroak egiteko egurra edota egurrean marrazkiak egiteko makina ze diseinu pertsonalizatuekin egindako zorroekin lan egingo dugunez material ona beharko dugu ekoizten gauden bitartean ahalik eta arazo gutxien izateko. Gure enpresa manufaktura enpresa bat izango da, hau da, lehengaietatik eta bitarteko ondasunetatik bereziki azken kontsumitzailearentzako produktu bukatuekin lan egingo dugu. Gure zorroak bezeroek nahi duten gustuko diseinuarekin ekoizteko eta haien etxeetara orduz heltzeko betekizuna dugu batez ere. Eta ekoizpen hortatik aparte webgunea mantentzeko, indartzeko eta administratzeko jarduera ere oso garrantzitsua izango da gure enpresak modu egoki batean funtzionatzeko eta bezeroak guk egin dugun lana ikusita berriz gure enpresara erosten bueltatzeko.